

AGUILAR Y CABRERIZO

El 3 de febrero de 1979 Romy Schneider levantaba en la sala Pleyel parisina su segundo César como mejor actriz. Lo conseguía por su papel en la película *Una vida de mujer* (1978), pero la intérprete era consciente de que el galardón no era el reconocimiento a un papel puntual sino a todo el trabajo que había desarrollado desde que dos décadas atrás llegara a Francia dispuesta a dejar atrás a la emperatriz Sissi, el personaje que la había convertido en almibarado icono del cine alemán. Dedicó la estatuilla a su director, Claude Sautet; posiblemente, nadie había tenido más peso que él en este camino.

El azar había cruzado a Schneider y Sautet diez años antes en los estudios Boulogne-Billancourt. Ella trabajaba en la sincronización de *La piscina* (Jacques Deray, 1968), la película que suponía su reencuentro con Alain Delon tras una relación tan fulgurante como turbulenta; él quería dar un vuelco a su carrera con una cinta que le pusiera al alcance de lo que el cine no le había ofrecido hasta entonces, y entendió al momento que ahí tenía a la mujer independiente que buscaba para protagonizar *Las cosas de la vida* (1970).

Su relación sentimental no tendrá largo recorrido, pero plantaría la semilla de una complicidad que se

# Claude-Romy: una amistad que fue mucho más allá de la amistad



Romy Schneider y Sautet en una pausa de la filmación de *Ella, yo y el otro*.

INSTITUT LUMIÈRE

extenderá durante toda una década. No siempre de manera cómoda para la actriz, en demasiadas ocasiones relegada a mera opción secundaria: si el papel de la prostituta de *Max y los chatarreros* (1971) estaba desti-

nado a Marlène Jobert, el de la mujer que pone el amor por delante de todo en *Ella, yo y el otro* (1972) había sido pensado para Catherine Deneuve. Pero Schneider no tiró la toalla ni cuando el director la relegó a una

colaboración fugaz en *Mado* (1976) ni cuando optó por Stéphan Audran para protagonizar *Tres amigos, sus mujeres y... los otros* (1974).

Schneider supo siempre esperar su oportunidad con una confianza

ciega, llegando a aceptar papeles que le ofrecía Sautet con solo leer una breve sinopsis del argumento de las películas. El de *Una vida de mujer* sería su trabajo culminante: el director le había propuesto un gran papel dramático para el momento en el que alcanzara los cuarenta y lo construyó mezclando elementos de los cuatro anteriores con rasgos de la personalidad de la propia intérprete.

La película alcanzaría un inmenso éxito de crítica y público y quedaría refrendada por toda una nominación al Oscar, pero este brillo no logró esconder un tono crepuscular, de tiempo ya pasado. Será la última colaboración de Schneider y Sautet. El destino trágico alcanzará a la actriz la primavera de 1982, cuando fue encontrada muerta en su piso parisino con solo cuarenta y tres años. Sautet le sobreviviría otros dieciocho sin conseguir aplacar nunca el pesar que le produjo su desaparición. A sus espaldas quedaba no ya una de las relaciones más fructíferas de la historia del cine francés, sino algo que la actriz calificó como "una amistad que fue mucho más allá de la amistad".

## LES CHOSSES DE LA VIE / LAS COSAS DE LA VIDA

ALBERTO BARANDIARAN

"Ez daukagu iraganik; iragana frakasoa da", dio filmaren protagonistak, eszena batean. Eta beharbada horixe da Claude Sauteten pelikula honen atzean dagoen ideia hobekien laburbiltzen duen esaldia: iragana astuna dela, faltsua dela, eta batzuetan ez digula bizitza bera lasai bizitzen uzten. "Gogaikagarria da denbora galtzea", berresten du Pierre arkitektoak (Michel Piccoli) beste eszena gogoangarri batean. Bizi gaitetzen gaur, azkar bizi ere. Ez gaitetzen jarri atzera begira. Nahiz eta batzuetan ezinezkoa den, bizi gaitetzen gaur, loturirik gabe.

Haren beste film ezagunago batzuetan ez bezala, teknika narratibo arriskutsua erabili zuen Sautetek pelikula honetan, baina egindako aukera ausartak bat egiten du, erabat, gidoiarekin eta narrazioaren giro nagusiarekin. Ondo pentsatuta, ezin besterik egin.

Hasieratik, atzerakako kontakizuna proposatzen digu zuzendariak, eta dena hasten da protagonista nagusia hiltzen den une berean: istripu bat da lehen eszena, istripua Frantzia iparraldeko barnealdeko gurutzebide batean, bigarren mailako errepide batean, Paris eta La Rochelle artean, Reirlarako bidaia ero eta biziari amaiera emango dion istripua, hain zuzen ere. Amaiera behar lukeen hasiera proposatzen digu, beraz, zuzendariak. Hortik aurrera, denak dira iragana zorientsu eta argitsuarekiko erreferentziak: irla atlantikoan pasatako

# Iraganaren tranpak

egunak; familiaren belaontziarekin egindako paseoak; semea eta andrearekin bizitako une irribarretsuak.

Kontrastean, gaurkotatzen Paris ilun eta euritsua dakar; lan nekezaren morrontzak; maitasun korapilatsuen gora beherak. Pierrek Hélène (Romy Schneider) maite du, baina

maite du ere aurreko bizitzarekin lotzen duen guztia, eta bata eta bestea, biak batera, ez dira posible. Bikoteak Tunisiarako bidaia bat du amets, hori da hurrengo proiektua, hortik hasiko da bientzako bizitza berria, baina Pierrek Reirlara joan nahi du, semea han zain duelako, eta zorientasuna

han aurkitu zuelako.

Isiluneek asko esaten dute *Les Choses de la vie* (1970) filmean. Isiluneek, eta begiradek. Eta Pierrek erabakitzen duenean bere iraganaren bila abiatzea, erabaki kontziente eta, era berean, inkontzientea hartzen du: aurreko bizitza berreskuratu nahi du,

jakin arren ez dela posible; era berean, bere presentearekin hautsiko duela badaki. Eta, harrigarria bada ere, ez ditu topatzen hitzak aukeraketa horren nondik norakoak maitaleari azaltzeko.

Bilatze horretan, bakarrik abiatzen da, eta bidaia osoa tentsioz betetakoa da: euria, gaua, bakarriketa... tragedia arnastu egiten da. Pierrek jakako sakelakoan darama bere maitaleari idatzi dion despedida gutuna: "Utziko zaitut, miserableki ari ginen elkarrekiko. Ez dut nahi, nahiago dut bakarrik segitu". Baina, bidaltzekotan dagoela, posta bulego kaotikoan bertan erabakitzen du ezetz, ez duela gaur egun maite duenari traizioa egin nahi, eta mezu bat utziko dio Hélèneri: "etorri, etorri lehenbailehen". Pierrek nahi du aurreko bizitzaren zorientasuna eta gaur egungo maitasuna, biak batera. Nahi du, denok nahi duguna: berriz hasteko aukera izatea, dramatismoa gabe.

Ez da posible izango, baina: kamioi bat bidean gurutzatuta geratu da eta Pierre azkarregi doa, poz eroan. Azken uneak, azken pentsamenduak, poltsikoan gordeta daukan gutunari buruzkoak dira. "Gutuna erre behar dut; gutuna erre, bakarrik ez segitzeko". Beranduegi iritsiko da, baina, damua.

Azken unean, nor eta aurreko bizitzarekiko lotura den andreak ziurtatuko dio, Pierri, betiereko zorientasuna.

